

zer ote?

maiatza saltsan 08

Zizurkilgo aisialdirako gida

www.zizurkil.com

maiatza 2008 59. zenbakia UDABERRIA

Aurrera Plaza 3, 20159 ZIZURKIL • 943 692495

ZIZURKILGO UDALA

kultura | euskara | kirola
gazteria | hezkuntza

ziboteon euskara ziboteon

Informazio gehiago
Aurrera Plazako
Udal Bulegoetan.
943 692495



Kultura

AISIALDIA, KIROLA, KULTURA, HEZKUNTZA, GAZTETXO ETA EUSKARA INGURUKO EKINTZA INTERESGARRIAK FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA: Udalak 2008. urteko dirulaguntzak elkarteei emateko Deialdia apirilean kaleratuko du.

08-5-4 Andatza Eguna

11:00etan Hamaiketakoa: salda, txorizoa, haragi egosia eta edaria.
12:00etan Herri kirol eta jokoak haurrentzat eta helduentzat.
12:00etan Bazkaria (norberak berea eramanda). Kafea eta kopa banatuko dira.
Goizean zehar, erromeria: trikitilari eta bertsolariak.



08-5-5 Hernandorena Ipuin Lehiaketako liburuaren aurkezpena eta Maite Franko ipuin kontalaria 7-10 urte bitarteko haurrentzat 18'00etan Atxulondon.

08-5-10 KEN ZAZPI 22'00etan Intxaur Frontoian. Sarrera: 10 euro. Aldez aurretik erosi ahal izango dira sarrerak Aurrera Plazako Udal Bulegoetan (943-692495).

08-5-11 HERRI URRAT'S

08-5-12/16 “Krisi ahaztuak. Bizitza ezikusiak”, Mugarik gabeko medikuak antolatutako argazki erakusketa Atxulondo Kultur Etxean. Maiatzaren 19tik 23ra erakusketa hau Iriarte Kultur Etxean egongo da ikusgai.



08-5-14 Zizurkilgo haur bertsolarien emanaldia 18'00etan Atxulondo Kultur Etxean.

08-5-15 San Isidro eguna

11:00etan Meza
12:00etan Aizkolari eta harrijasotzaileak.
12:00etan Bazkaria Plaza Etxeberri jatetxean trikitilari eta bertsolariekin. Bertan izen eman behar da.

08-5-16 Pedro M. Otaño atzo eta gaur, bertso eta musika ikuskizuna 18'30ean Atxulondo Kultur Etxean, Otaño Ikastetxeak bere 25. urteurrenaren barnean antolatutik.

08-5-18 Zizurkilgo X. Biatloia: Hiru modalitate 7 urtetik aurrera. Partehartzaile guztien artean opariak eta goxokiak banatuko dira. Izen emateak maiatzaren 5etik 16ra egin beharko dira Aurrera Plazako Udal Bulegoetan edo 943-692495 telefonoan. Izen emateak DOAN.

08-5-19/30 El salvadoreko Segundo Montes komunitatearen inguruko argazki erakusketa. Inaugurazioa maiatzaren 19an 19'30ean. Zizurkil eta Segundo Montes anaieratuta daude 1994tik eta egiten ari diren proiektu eta etorkizuneko ekimenen berri emango da.

08-5-21 eta 28 ZINEA EUSKARAZ, “Malabar Printzesa” 11'00etan eta “Lagundu! Arraina naiz” 11'30ean Villabonako Gurea Zinean.



08-5-23 Xabier Lasak idatzitako BEGI KOLPEA: Teodoro Hernandorenaren biografia izenburuko liburuaren aurkezpen ekitaldia 19'30ean Atxulondo Kultur Etxean, Larramendi Bazkunaren eskutik.

08-5-24 Loatzo Musika Eskolako dultzaina ikasleen kalejira 11'30etik aurrera.

08-5-28 ARPA KONTZERTUA, Oihane eta Juan Cruz Igerabide, 15'15ean Otaño Ikastetxean, bere 25. urteurrenaren barnean.

08-5-30 MIKEL MARKEZEN KONTZERTUA El salvadoreko Segundo Montes komunitatearen alde 20'00etan Atxulondo Kultur Etxean. Sarrera: 5 euro.



OPORRETAN EUSKARAZerako BEGIRALEAK: Ekainaren 23etik uztailaren 18ra bitartean burutu ko da Oporretan Euskaraz eta begiraleen zerrenda osatuko da. Deialdian parte hartu ahal izateko ezinbesteko baldintzak ondorengoak dira: Zizurkilen errolatua egotea; 18 urteak beteak izatea edo 2008. urtean betetzea; euskara ondo menderatzea eta azterketa teoriko-praktikoa egitea. Izenak emateko epea maiatzaren 30ean bukatuko da.